


## Euskal AEko eraikuntza kostuek % 0,3 egin zuten behera 2016ko uztailan aurreko hilaren aldean

**Aurreko urtearekin alderatuta (erreferentzia 2015eko uztaila hartuta), eraikuntzako kostuak % 1,0 jaitsi ziren.**

2016ko uztailan % 0,3 egin zuen behera Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizeak aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa, aldiz, hilabete berean, % 1,0 jaitsi zen, EUSTATEN datuen arabera.



Aurreko hilaren aldean, eskulanaren kostua ez da aldatu (% 0,0); lehengaien kostuak, aldiz, % 0,4 jaitsi dira.

Lehengaien kostuari dagokionez, Etxegintzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek zeinu eta magnitude bereko bilakaera izan dute uztailan aurreko hilaren aldean, eta bai Obra Zibilak bai Etxegintzak kontsumitutako lehengaien prezioak % 0,4 jaitsi dira. Urte arteko bilakaera negatiboa izan da bi azpisektore hauetan, baina aldeak nabarmenak dira. Etxegintzako lehengaien kostuak % 1,2 jaitsi dira eta Obra Zibileko lehengaienak, aldiz, % 3,4.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien urte arteko prezioetan (2015eko uztailetik 2016ko uztailera) igoerarik handiena izan dutenak *Material elektrikoak* (% 2,7ko igoera), *Zurgintza* (% 1,4koa) eta *Makinaria* (% 0,5koa) izan dira; eta azken hamabi hilabeteotan sektorean kontsumitutako lehengaien prezioetan jaitsierarik handiena izan dutenak, aldiz, *Petrolio-fintzea* (% 18,3ko jaitsiera), *Metalurgia* (% 6,2koa) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 4,3).

## 1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2016ko Uztaila

|                  | INDIZEA      | ALDEAREN %  |             |             |
|------------------|--------------|-------------|-------------|-------------|
|                  |              | m/m-1       | m/m-12      | m/abendua   |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>101,0</b> | <b>-0,3</b> | <b>-1,0</b> | <b>-0,7</b> |
| Eraikinak        | 101,3        | -0,3        | -0,7        | -0,7        |
| Obra zibila      | 99,3         | -0,3        | -2,4        | -0,7        |
| <b>LEHENGAI</b>  | <b>99,4</b>  | <b>-0,4</b> | <b>-1,6</b> | <b>-1,2</b> |
| Eraikinak        | 99,8         | -0,4        | -1,2        | -1,2        |
| Obra zibila      | 97,0         | -0,4        | -3,4        | -1,3        |
| <b>LAN-ESKUA</b> | <b>106,7</b> | <b>0,0</b>  | <b>1,0</b>  | <b>1,0</b>  |

Oinarria 2010=100  
 (p) behin-behinekoa

**Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea**

### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz  
 Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62  
 Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)  
 Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)